



Iturria: *Uskal Noelen Lilia Hounturik Jesusen Inkarnaziaren ouhouretan eta orai harzara Uskaldun batek ahair zaharrekin arra moulda erazirik*, Charles Bordes. 1897.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/B/BordesNoelen.htm>

## ÜSKAL NOELEN LILIA

**Charles Bordes**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**ÜSKAL NOELEN LILIA**  
**huntürik Jesüsen Inkarnaziariaren uhuretan**

Eta orai harzara Üskaldün batek ahaire zaharrekin arra mulda erazirik

SALZEN DA PARISEN.  
Bakhoitza: hamar sos.  
Hamarrak: hirur libera.

1897



## IRAKURZALER

Diala ehün eta hamabost urthe inprimatü zütien, lehentze eta berhez, hamabi Noel; geroztik, dakigülarik, arramuldatürük izan dira berritan, hüts berekin, ezpazien ere haboro. Noel haietan baziren zunbait arrimü gabe, beste batzü aldiz, ezinago gaixki muldatiak, bertsiak batian lüzegi, bestian llabürregi.

Orai argitara emaiten dütügü hamabi Noel, ahaire ederrenak dütienetarik. Hartü tügü, pharte handiena *Noelen lilian*; bat *Othoitze eta Kantika espiritüalak* den librian; bestiak, azkenik ziberutarrez inprimatü kantiketan. Nula, erran bezala, hüts hanitx beitzien, berheziki Noelen Lili-koek, ahalaz untsa xüxentü tügü, zunbait ere kasik osoki arra berritü. Lan aski idorra eta gaitza izan zaio, inprima erazliari besteren obren xüxentzia; eta zunbat nahi artha eman dian lan horri, ezta nahi-bezala bürütan joan, ezinbestian, eta denbora eskazez. Halere esparantxa dü, diren bezala hun hartüko dütiela Noel horik Ziberoan.

Daigün urthian, Jinkoak lagüntzen gütiaririk, emanen dütügü kartilla berhezi batetan bilhatü ahal izan diren Noelak oro bere ahairekin, laphurtarrak ziberutarrak bezala.

## ANJELÜSAK ÜSKARAZ

Zelütik jinik aingüriak,  
Mariari anontzatzen  
Amatako Jinko Semiak  
Hura diala haitatzen.

Hao naizüla bethi neskato  
Zelüko Jaon handiaren;  
Haren erran saintiak oro  
Nitan betherik biraien.

Berhala sabel sakratian  
Mariak dü haor ernatzen;  
Bethikoa zaikü lürrian  
Gü gatik gizun egiten.

Zuri bihotzez giaodetzü,  
Zelü lürren erregiña;  
Zelütik ükhen izagüzü  
Hara heltzeko dohaña.



## NOELAK

## BIRJINA GAZTETTO BAT ZEGOEN

Birjina gaztetto bat zegoen  
 Kreazale Jaonaren othoitzan,  
 Nuiz et'aingürü bat lehiatü  
     Beitzen zelütik jaitxi  
     Mintatzera haren.

Aingüria sartzen, diolarik:  
 «Agur, graziaz zira betherik,  
 Jaona da zurekin, benedikatü  
     Zira eta haitatü  
     Emazten gañetik».

Maria ordian dülüratü,  
 Eta bere beithan gogaratü  
 Zeren zian uste gabe ebtzüten  
     Hura agur erraiten.  
     Hanbat zen lotsatü.

«Etzitela, ez, lotsa, Maria;  
 Jinkoatan bathü'zü grazia:  
 Zük düzü sabelian ernatüren,  
     Eta haor bat sorthüren  
     Jesüs datiana».

Harek, dülüratüririk, harzara:  
 «Bena nula izan daite hola,  
 Eztüdanaz gizunik ezagützen,  
     Ez eta ezagütüren  
     Batere seküla?».

«Ezpiritü saintiak huntia  
 Izanen düzü hori, Maria».  
 Zü zirateke, ber ordian, ama  
     Bai et'ere birjina,  
     Mündian bakhoitza.



Mariak arrapostü ordian:  
 «Hao naizü Jinkoren zerbütüxian,  
 Zük errana nitan biz konplitü».  
 Jaona aragitü  
 Haren sabelian.

O Jinkoaren ama saintia,  
 Bekhatügilen ürgaitzarria,  
 Zük gitzatzü lagünt, bai Jinkoaren,  
 Baita berthütiaren  
 Bihotzez maithatzen.

## KANTA ZAGÜN GÜZIEK

Khanta zagün güziek  
 Ahalik gorena,  
 Laida'zagün Maria,  
 Jinkoaren ama.  
 Jakin zian zelütik  
 Zer zen agitüren,  
 Birjina zegoelarik  
 Zela amatüren.

Gure salbamentiaz  
 Errazü Maria  
 Nurk ekharri zereizün  
 Zelütik berria?  
 Gabriel aingüriak,  
 Etxian sarthürrik,  
 Jinkoari zelian  
 Gü ürrikaltürrik.

Zer aita eternalak  
 Dereizü mezütü?  
 Gabriel aingüria  
 Nula zen mintzatü?  
 Salututzen zütügü  
 Birjina Maria  
 Grazia da zurekin  
 Eta Jaon handia.

Zer eretzetan zinen  
 Hitz horik entzütian,  
 Gabriel aingüriak  
 Zgur zeizünian?  
 Galilean nindagon,  
 Herri ederrian,  
 Nihaor etxen berbera  
 Ari othoitizan.



Gabriel aingüriak  
 Zü salütatürik  
 Ekharri zereizüna  
 Deus beste berririk?  
 Erran dereit: zük düzü  
 Zük kontzebitüren,  
 Zük düzü semetako  
 Jinko bat ükhenen.

Maria, othe zinen  
 Zure beithan laztü  
 Gisa horrez zenian  
 Gabriel mintzatü?  
 Bai düüratü nintzan  
 Egiaz ordian,  
 Nahi benintzan bizi  
 Birjinitatian.

Aingüriak zer erran  
 Zereizün Maria,  
 Ikhusirik zinela  
 Zü laztü güzia?  
 Ezpiritü saintia  
 Zütan da jaitxiren,  
 Goikoaren indarrak  
 Zütü estaliren.

Maria, aingüria  
 Zünian sinhetsi?  
 Eta nula zenerion  
 Hari ihardetsi?  
 Zelietako Jaona  
 Biz bethi laidatü,  
 Harek nahi diana  
 Nitán biz konplitü.

## HOTS AINGÜRIEKIN

Hots aingüriekin,  
 Arkanjeliekin,  
 Gaor khantatzera  
 Gur'erregiaren  
 Jinko semiaren  
 Adoratzera.

Ez izotzegatik,  
 Ez ülhünpegatik,  
 Egon herabez.  
 Har fedia gida,  
 Jinkoatan fida,  
 Goatzan lasterrez.

Badoatz'artzañak,  
 Arhinik belhañak,  
 Lehen bai lehen,  
 Ikhus diroienez  
 Eia sorthü denez  
 Jesüs Betlemen.

Goatzan gü ere,  
 Bihotzez berere,  
 Heipe hartara,  
 Jesüs maitiaren  
 Gure bermiaren  
 Adoratzera.

Jesüs barrükian,  
 Astoa khantian,  
 Sorthü hotzetan.  
 So zaokon idia,  
 Eitzirik jatia,  
 Phaosü handitan.



Harentzat etxerik,  
Hain güti khüñarik,  
Etzen agitü.  
Betleme hiria,  
Zük, bihoz gabia,  
Jesüs ez hartü!

Erregek etxiak  
Dütie bethiak  
Hatü ederrez:  
Jesüs barrükian,  
Bai laston gañian,  
Dago nigarrez.

Nurk daidio sorik  
Begiak idorrik,  
Sorthü haorrari,  
Gai hotz borthitzian,  
Bero ezinian  
Hortxe denari?

Zinez düt sinhesten  
Begiez ikhusten  
Banü bezala,  
Amak haor maitia  
Betlemen sorthia  
Jinko diala.

Adam, lehen aitak,  
Egin zian berak  
Hütsa lehenik;  
Bai eta Mesiak  
Soltatü güziak  
Lürrera jinik.

Jaona banarraizü,  
Othoi sogidazü,

Ai ene botza;  
Zützaz gozatzeko,  
Zuri eskentzeko  
Ene bihotza.

Aingüriak dira  
Jesüsen begira  
Khantüz goratik;  
Bai eta artzañak  
Han eitzi ber'olhak,  
Laster eginik.

Dezagün gük ere,  
Bihotzez berere,  
Jesüs adora,  
Ezar gitzan gero,  
Haren haorak oro,  
Zelian gora.



## BIBA JESÛS GURE JAONA

Biba Jesüs gure Jaona  
Gaorko gaian sortzen dena,  
Bib'Andere dona Maria,  
Biba Josef, aita huna.

Kristi orok dügün laida  
Jinko Jaon ürrikalsia,  
Orogatik zelütik beita  
Jaitxi gure salbatzera.

Gerla handi bat da phiztü,  
Tronpetek die sonatü,  
Trinitatia da khexatü:  
Adamek egin bekhätü.

Gormandizazko bekhatia,  
Ala hi gora phikatü;  
Desobedientzia heltü  
Zelakoz handürreria.

Han zen ere güdizia  
Sobera jakin nahia;  
Horik güziek erazirik,  
Dela Jesüs Jaona jinik.

Gabriel mezü saintiak  
Maria salütatü dü;  
Ezpiritü saintü goikoak  
Dohañ oroz bethatzen dü.

Sorthü da Jesüs lürrian  
Gure gatik gaorko gaian:  
Bai etare hor, barrükian,  
Etzan gabezia handian.

Sortzian ez ürgüllürik,  
Gero bizitü praoberik,  
Azkenian hil bilaizirik:  
Horik oro gure gatik.

Ditzogün arren eskerrak  
Bere huntarzünez oroz;  
Eta gaor sortzen denaz geroz,  
Hari, bai, gure bihotzak.





## O EGÜBERRI GAIA

O Egüberri gaia,  
O, zü, gai dohatsia,  
Alageratzen düzü  
Bihotzez khiristia.

Mündü güzia düzü  
Boztarioz bethatzen,  
Zeren zük beitiözü  
Mesia dela sortzen.

Gai ülhünian ezta  
Ez, ageri ekhirik;  
Huntan agertzen zaikü  
Ikhusgarriz elkhirik.

O gai desiratia,  
Argia düzü phiztü  
Harek mündia oro  
Behar beitü berritü.

Zelietan izarrak  
Botzik jaosiz aritzen,  
Ohi beno beitie  
Gehiago argitzen.

Aingürü hunak orai  
Hasi dira khantatzen:  
Boztera dütiela  
Gizonak khümitatzen.

Errepikatzen die  
Manjüretez artzañek,  
Bardinetik dereie  
Ihardesten larzañek.

Arrañak ari dira  
Jaoziz ühaitz barnian,  
Ardiak mendin gañen,  
Arranoak airian.

Gaiza güziak dira  
Orai alageratzen:  
Halaber egitera  
Bagütie bulkatzen.

Debrien ozte gaitza  
Gai huntan ikharatzen:  
Haren goitzale geia  
Delakoz orai sortzen.

Eman'zagün aitzina,  
Gük, boztarioari;  
Ditzogüla bihotzak  
Sorthü Jesús haorrari.



## OI BETLEEM!

Oi Betleem!  
 Ala egün zure gloriak,  
 Oi Betleem!  
 Hanitx beitü distiatzen  
 Zureganik heltü argiak,  
 Bethatzen tü bazter güziak,  
 Oi Betleem.

Zer uhure!  
 Ala beitzira goratia,  
 Zer uhure!  
 Zer grazia, zer fabore!  
 Zeliak zira haitatia  
 Jesüs haorraren sorlekchia,  
 Zer uhure!

Azkenekoz  
 Hor heltzen da Jesüs maitia,  
 Azkenekoz.  
 Dügün laida bihotz oroz;  
 Hersi nahi dü ifernia,  
 Et'ireki guri zelia  
 Azkenekoz.

Guregatik  
 Jinko bat photerez bethia,  
 Guregatik  
 Jaixten da zelü goratik:  
 Bai sortzen da Jinko Semia,  
 Bitima thonarik gabia,  
 Guregatik.

Manjateran  
 Dago haorrik aberatsena,  
 Manjateran.  
 Nurk othe zükian erran  
 Zelü lürren jabia dena  
 Ikhusiren zela etzana  
 Manjateran?

Artzañekin  
 Jiten niz lehiaz zügana  
 Artzañekin.  
 Haien antzo nahiz egin;  
 Adoratzen zütüt, Mesia,  
 Zuri'maiten bihotz güzia  
 Artzañekin.

Eztüt deusik  
 O Jesüs zuri eskentzeko,  
 Eztüt deusik,  
 Bihotz ogendün bat baizik:  
 Eskerren zuri bühürtzeko,  
 Hanbat dohañen phakatzeko,  
 Eztüt deusik.



## EGÜBERRIREN JITIAZ

*Egüberriren jitiáz*  
*Izan gitian boztürrik;*  
*Jesüsen izen saintiaz*  
*Giraian oro betherik.*

Eba gure lehen amak  
 Falta egin zianian,  
 Bertan Lüzifer gaixtoak  
 Bere pekotü güntian.

*Egüberriren jitiáz...*

Bena Jesús Kristek gütü  
 Gizontzez arra erosi  
 Eta gaitzetik baztertü,  
 Ezgünilarik merexi.

*Egüberriren jitiáz...*

Birjina batek dü sorthü  
 Establia txar batetan,  
 Eta berak adoratü  
 Ümilitate handitan.

*Egüberriren jitiáz...*

Jesüs jaio bezain berri,  
 Aingüriek alabatü,  
 Bai eta're hantik sarri  
 Jin artzañek adoratü.

*Egüberriren jitiáz...*

Hor dütü goizerritarik  
 Erregiak dohañekin,  
 Izan zeitzonak emanik,  
 Gogo hoberenarekin.

*Egüberriren jitiáz...*

Mirra, inxentsü berari  
 Dütie ohereskatü;  
 Orano Jesús haorrari,  
 Ürhe ederrik eskentü.

*Egüberriren jitiáz...*

Errege haien gidatzen  
 Izar bat bethi zabilan,  
 Zeren Jesús haorra beitzen  
 Jinko gizontzen lürrian.

*Egüberriren jitiáz...*

Jesüs Kristek hanbat maite  
 Ükhen dü khiristinoa,  
 Ezin erran beitaiteke  
 Har'k dian amorioa.

*Egüberriren jitiáz...*

Sorthü delakoz gügatik  
 Hain nekezia handitan,  
 Dezagün othoi gogotik  
 Zelian oro har gitzan.

*Egüberriren jitiáz...*



## KHANTA BEZA

Khanta beza bitoria  
 Boztarioz mündiak.  
 Phorrokatü dü büria  
 Heren süge handiak.  
 Gaitza zen haren aidia,  
 Bena goithü Mesiak;  
 Ikharatü ifernia  
 Salbazale sorthiak.

Ülhünpeko zerükiak,  
 Goza goza argia;  
 Hitzemanik zen Mesiak  
 Ekharri dü bakia;  
 Asmeziak bethe dira,  
 Agertü da egia:  
 Gaiaz ekhiak argitü  
 Betlemen barrükia.

Bazakian Jinko Jaonak  
 Gure behar handia,  
 Nula gü ezkintakian  
 Gur'indarrez balia:  
 Halaz, arren, bethi danik  
 Haitatü dü semia,  
 Sorthüren zena lürrian,  
 Bekhatoren bermia.

Adam gure lehen aita  
 Satanek enganatü:  
 Egin zian bekhatia  
 Berak ezin bardintü.  
 Laor mil'urthez etzen ihur  
 Pharadüsian sarthü:  
 Azkenekoz Jesüs haorrak  
 Hanko borthak zabaltü.

Haor handi bat da jaiotü,  
 Alagera gitian.  
 Hark eztü bere bardinik  
 Zelian ez lürrian.  
 Agertü balitzeikü  
 Jinkoren ürhotsian  
 Nul'etzaikieon eginen  
 Batzarre hun lürrian.

Elaz! gure Jinko Jaona,  
 Establia batetan  
 Behar zinena jaiotü,  
 Animalen artian?  
 Gük merexi güniana  
 Hola khüpüts zentian?  
 Ala gizona betzaizü  
 Hanitx khosta lürrian.

Mündian zen jaoregirik  
 Haitüz ederrenian  
 Zinatalarik sorthü,  
 Printze kalitatian;  
 Borda txar bat irekirik  
 Haitatü'zü lürrian,  
 Kargatürik gure zorrez,  
 Sorthü aberen artian.

Zelian zünialarik  
 Hanitx khorte egile,  
 Aingürürik ederrenak  
 Dira berak jakile,  
 Gük merexi gabetarik  
 Gizon egin zirade;  
 Ginelarik bekhatore  
 Hartü zure aorhide.



Gur'arima pheretxatü  
 Düzü gaiza bekhana:  
 Gora zian prezioa  
 Hala nula erostüna.  
 Hao da hao amorioa,  
 Nur eleite estona,  
 Jinkoa dü haor'erazi  
 Salba lezan gizona.

Zelietan aingüriak  
 Ürgülliak ütsütü  
 Zeren nahi izan diren  
 Jinkoa üdürütü;  
 Mündü huntan dabilana  
 Nahi bada salbatü  
 Haien hütsari soginik  
 Behar d'ümilatü.

Photeria da Aitari  
 Bethireko bizian;  
 Semiari zühürtzia  
 Heben eta zelian;  
 Ezpiritia biekin  
 Bat da Trinitatian;  
 Pitz dezala bere süia  
 Güzien bihotzian.

## BEUDE BAZTER EGÜN

*Beude bazter egün gure tristürak;  
 Jesüsez ditzagün betha gogoak.*

Jesüs Kristo  
 hanbat hun zirade,  
 Guretako  
 Sorthü beitzirade  
 Kreatüregatik  
 Sofritü düzü  
 Eta orogatik  
 Hil zirade zü.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Adam aita  
 Zegoen iruski  
 Ezarria  
 Orotzaz saintüki;  
 Bena Jinko Jaona  
 Zeion ahatze,  
 Haren manü huna  
 Ebairre haotse.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Adam beitzen  
 Glorian dohatsü,  
 Debria zen  
 Borthizki phenatü  
 Nahiz galerazi  
 Berarekila  
 Eta daonerazi  
 Ororekila.

*Beude bazter egün gure tristürak...*



Emaztia  
 Nula aiherrago  
 Bekhatila  
 Gizunkia beno;  
 Traditzen beitätü bekhokereki,  
 Halaz enganatü  
 Eba gaixtoki.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Früta hartü  
 Ebak zianian,  
 Aholkatü  
 Zian Adam bertan,  
 Hark ere har lezan  
 Sagar hartarik,  
 Eta sinhets zezan  
 Satan bertarik.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Hal'ordian  
 Adamek sinhetsi  
 Emaztian,  
 Ez bühürtü hari;  
 Eta gloriatik  
 Halaz gabetü,  
 Baita Birjiniatik  
 Mesia sorthü.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Hütsa beitzen  
 Egin emaztian,  
 Bai züzen zen  
 Han sendo gintian.  
 Hartakoz Berboa  
 Da aragitü

Eta Jaongoikoa  
 Hartarik sorthü.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Birjinaren  
 Sabel sakratian  
 Egintü zen  
 Jesüs ordü hartan,  
 Egüberrian,  
 Baita gü salbatü  
 Ordü berrian.

*Beude bazter egün gure tristürak...*

Othoitz dügün Jesüs Krist maitia  
 Orok egün,  
 Dena haor sorthia;  
 Laket dakion, hark  
 Oro salbatü  
 Bai etare berak  
 Benedikatü.

*Beude bazter egün gure tristürak...*



## JAON HANDIAK IKHUSAZIE

Jaon handiak ikhusazie  
Jinko bat egün nigarrez;  
Eta izitürük horrez,  
A, ikhara zitie. *(berr)*

Ororen bürüzagi dügü:  
Aingüriak, erregiak  
Bai eta diren güziak  
Beraren peko dütü. *(berr)*

Debriaren pian beikinen,  
Karitatiak goithürük,  
Jin da, khüpüsten zelarik,  
Libratzera güzien. *(berr)*

Gibeltzen deikü ifernia.  
Minak gütü destorbatzen;  
Halaber gütü sendotzen  
Den senthagallü hunak. *(berr)*

Salbazale haor gure minaz  
Nahi izan da kargatü?  
Huntarzüna da gerthatü  
Garhaitzen jüstiziaz. *(berr)*

Nokügabe da hedatürük:  
Jinkoak zer khüña dian!  
Gü ümil izan gitian  
Haor hola ikhusirik. *(berr)*

## KHIRISTIAK ORDÜ-DA

*Khirstiak, ordü da*  
*Dügün sogin gora:*  
*Jesüs hantik jaitxi da*  
*Gure salbatzera.*

O Jesüs, egün zira  
Hasi odol ixurten;  
Nula Jinko beitzira,  
Deriküzü ikhasten.  
Nul'egin behar dügün  
Zelian har-gitzazün.

*Khirstiak, ordü-da...*

Egün zortzi müdüra  
Gügatik sorthü zinen,  
Eta egün Tenplüra  
Zihaortarik agertzen:  
Bortxatü ezpeitzinen  
Hara juan zentien.

*Khirstiak, ordü-da...*

Etzinen khozatürük  
Bekhatü orijinalaz;  
Nahi zinen hargatik  
Estrenatü odolaz:  
Ezpeitzen lege hura  
Zuretako egina.

*Khirstiak, ordü-da...*

Urthia ürhentürük  
Berri bat dügü hasten.



Zük nahi düzülarik,  
Graziaz gira hazten:  
Deus merexi eztüğü,  
Halere ürgaitz gitzatzü.

*Khirstiak, ordü-da...*

Urthe berritze huntan  
Sinheste düğü zütan;  
Ürrikari zakizkü,  
Entzün gure oihiak;  
Othoi phark'itzagützü  
Orori gur'ogenak.

*Khirstiak, ordü-da...*

O Jesús haor maitia,  
Orhit edük gitzatzü:  
Zelialat bidia  
Erakuts ezagüzü,  
Laida zitzagün bethi  
Han saintü oreaki.

*Khirstiak, ordü-da...*

Oi, zü, Ama Birjina,  
Zaode gur'artekari,  
Bai gure berme huna  
Balia zit'orori  
Dohatsü izan gitian  
Orozbatkoz zelian.

## HIRUR ERREGEREKI

Hirur erregereki  
Maiteki  
Laidatzen zütüğü,  
Eta Herodeseki  
Gerla nahi düğü.

Izar bat zen argirik  
Handirik  
Zelütik agertü:  
Erregiak bertarik  
Berhal'abiatü.

Herodesen hirian  
Berian  
Hek zien galthatü,  
Eia hanko herrian  
Jesüs zenez sorthü.

Herodes erregia,  
Bei eia  
Khexütan jarririk,  
Gogoratü bazenez  
Beste erregerik.

Herodesek berhala  
Khortia  
Zian bil erazi,  
Jakín nahi beitzian  
Berri hobeki.

Herodesek ordian  
Berian  
Ükhen arrapostü  
Kristek behar ziala  
Betlemen jaiotü.





Erreger diosteie:  
Zoazte,  
Ezta sorthü heben;  
Ikhusten badüzie,  
Eni erran nun den.

Majek alageraki  
Jarraiki  
Zien bide hura,  
Bai eta adoratü  
Gero Jesús haorra.

Mirrha zeren eskentü  
Inxensü,  
Ûrhe hanitxeki;  
Et'ützültzeko joan  
Beste bidez gainti.

Jesüs, laket bazaizü,  
Igüzü  
Errege haieki,  
Beitüzü photeria,  
Gloria iruski.

O Birjina garbia,  
Maria,  
Othoitzen zütügü  
Jesüsen eretzian  
Balia zakizkü.

Jesüs zelietao  
Lürreko  
Kreazale Jaona  
Othoi hel'az gitzatzü  
Pharadüsiala.